

JOKU HEURISTIKOA (1-2 URTE)

Joku heuristikoa altxorraren otarraren jarraipena da. Haurrak mugitzen den momentutik, askatasun osoz objektua aztertu eta bakoitza bere modura konbinatzen ditu. Talde txikian egiteko jolasa da.

HELBURUAK

- Pentsamenduaren egitura aurrerapauso handia lortzen dute.
- Bere jolasean zentratu egiten dira.
- Manipulatzen duten materialaren ezaugarri batzuk ezagutzen dituzte.
- Autonomiaz jokatzeko gaitasuna areagotu egiten da.
- Arrakasta eta pozaren sentimendua bizi eta adierazten dute.
- Materiala errespetatu eta beste haurren presentzia onartzen dute.
- Isiltasuna eta lasaitasuna nagusitzen den giroa sortzen da.

EKINTZAK

- ireki-itxi
- atera-sartu
- gehitu, pilatu
- jaurtiki
- banatu
- kolpatu
- birarazi

MATERIALA

Erabilera ludiko jakin bat ez duten objektuak erabiltzen dira, baina elkarren artean konbinatzeko errazak direnak : naturatik jasotakoak, etxean, dendetan bilatutakoak.

- OBJETUAK: pintzak, pinaburuak, koloretako zintak, arraultza kaxak, maskorrak, giltzak, ileko erruloak,...
- EDUKIONTZIAK: edozer gauza gordetzeko prestatuak, edukiera sakonak gogorak eta haurrak erraz erabiltzeko prestatuak.
- POLTSAK: materiala txukun gordeta izateko, eta jasotzeko garaian modu antolatu batean materiala sailkatu eta jasotzeko.

JOLASAREN FASEAK

- Espazioa jolaserako egokitu eta prestatu egiten da.
- Haurrek materiala aztertzen dute eta objektu batzuk besteekin konbinatzen dituzte.
- Hezitzaileak gidaturik eta era antolatu batean, haurrek materiala irakaslea duen poltsan jasotzen dute. Horrela , materiala sailkatzen ikasi eta hizkuntza lantzen dute. Horrelako mezuak barneratzen dituzten haurrek:
- Ekarri
- Sartu barruan.
- Hori ez, ondoan dagoena

HEZITZAILEAK : haurrak ondorengo ekintzak aurrera eramaten dituen behaketa egingo du:

- Konzentraziorako gaitasuna
- Jolasean parte hartzen duen.
- Materialak nahasten dituen.
- Aspertzen den.
- Jasotzeko garaian parte hartzen duen
- Iniziatiba duen
- Jolaserako giro lasaia mantentzen duen.
- Beste haurren presentzia onartu eta errespetatzen duen.

SAIOA

Hezitzaileak jokua garatuko den gela prestatuko du, erabiliko ez den materiala alde batera utzi eta jolas heuristikoa beharrezkoa den espazioa sortuko du.

Hiru edo lau objektu mota aukeratuko ditu, poltsetatik objektu mota bakoitzeko unitateak atera eta edukiontziak prestatuko ditu.

Gelako distantzia berdina dauden zenbait puntu ezberdinetan edukiontziak eta objektuak kokatuko ditu.

Haurrak askatasun osoz arituko dira objetuekin jolasean, aztertzen eta bakoitzak bere modura konbinatzen.

FAMILIEN LAGUNTZA

Familien laguntza eta inplikazioa ezinbestekoa da, materiala lortzeko garaian eta ideiak emateko garaian ere.

